

Aretxabaleta,
1994eko urtarrilak 13

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRANARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Aretxabaleta



Astelehenerako merkatua

- Almenen hezkuntz proiektua
- Afizioak: Izaskun Iglesias
- Kirolak: Olinpiada Marianista



Izena: Pepi

Abizenak: Rosado

Non jaio: Atxabaltan

Non bizi: Atxabaltan

Lanbidea: Eroskiko langilea

Ezkondua? Bai

Zenbat seme-alabekin: Seme bi

- **Armozatu zer?**
- Kafe esnea zopak in armozetan dut
- **Non paseatzen duzu atxabaltan?**
- Egia esateko, Atxabaltan paseatzeko leku asko ez dago, kalean gora, kalean behera ibili behar dugu, ez dago parkerik bertan egoteko eta hori faltan botatzen da.
- **Dutxatu edo bainatu?**
- Denbora daukadanean bainatzea gustatzen zait, baina denboraz gehienetan estu ibiltzen naizenez dutxa batekin konformatzen naiz.
- **Eguneko momenturik onena?**
- Lana bukatu eta etxera joaten naizenean.
- **Gutxien eta gehien gustetan zaizun jana?**
- Gutxien gustetan zaidan jana arrautza frijitua da eta gehien gustetan zaidana potajea.
- **Kolonia erabiltzen duzu?**
- Kolonia erabiltzen dut, baina oso freskoak direnak gustatzen zaizkit.
- **Irakurtzen duzu horoskopoa, eta sinestu?**
- Esku artean badaukat irakurtzen dut, baina ez dut sinesten, irakurri arren.
- **OHE (ovni)-etan sinesten duzu?**
- Ez naiz sekula gai horretaz pertsatzen jarri, behar bada esistituko dira, behar bada ez, ez dakit zer esan gai horren gainean.
- **Afiziorik?**
- Marraztea asko gustetan zait
- **Seme-alaba kopuru ideala?**
- Ez dakit zergatik, baina beti hiru izan dut kopuru

idealtzat. Ni seme bitan gelditu naiz eta ez noa ez, hirugarrenaren bila.

- **Telebistak kalte ala lagundu egiten du?**
- Telebistan gauza interesgarriak egongo balira, dokumentalak edo zeozer erakusten duten programak, behar bada lagungarria litzateke baina gaur egungo telebistak ez du ezer aportetan, "kaja leloa" besterik ez da.
- **Erosteko denda handiak ala txikiak?**
- Denda handietan pertsonen arteko hartu emanak oso hotzak dira. Txikietan, ostera, harreman estua goak dituzu. Dena dela, gaur egun jendearen joera denda handietan erostekoa da.
- **Amestutako lanbidea?**
- Margolaria izatea.
- **Atxabaltako osasun zentroaren gainean, ze iritzi daukazu?**
- Oso txarto funtzionatzen duela uste dut, batez ere ordutegiari dagokionez.
- **Errezetan duzu, noiz?**
- Gauero errezetan dut, nire gurasoek horrela irakatsi zidaten eta ohitura horrekin jarraitzen dut
- **Lurperatu ala erraustu, zer gurago?**
- Ni hiltzen naizenean, nire organoak emateko moduan badaude, guztiak emango nituzke. Bestela berdin dit bata zein bestea.
- **Beldurra zeri?**
- Ez naiz beldurria
- **Gehien baloratzen duzuna pertsonengan?**
- Adiskidetasuna

Zer eskatzen diozu 1994. urteari?



Iñaki Arana
(Langilea)

Lana denendako eta pakea munduan.



Blanka Perea
(Langilea)

Denendako lana eta pakea eta baita zoriontasuna ere, beharbada azken hau lortzeko gaixena da eta.




Ana Mari Arbulo
(Etxekoandrea)

Osasuna eta denondako lana.




Eulogio Escobares
(Langilea)

Lana, ilusioa eta krisia bukatzea.




Mari Flor Gonzalez
(Langilea)

Gaur egun egoera zela dagoen ikusita, lana batez ere.



Ramon Altube
(Langilea)

Lana eta ea lanpostu barriak sortzeko urtea den.



J. Miguel Aranburu
(Langilea)

Lana, osasuna eta zoriontasuna denondako.



Arantzazu Rubio
(Langabetua)

Lana eskatzen diot hasi berri den urteari.

KARTAK

Eskerrikasko

Urtero bezala, Gabon jaiak pasa berri diren honetan, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, bai gure izenean, eta baita Iñaki Iturri eta Kepa Urraren izenean ere, herriko dendari, tabernari, eta modu batera edo bestera Gabon Kanpaina honetan euren laguntza eskaini diguten Atxabaltar guztiei.

Aretxabaletako Amnistiaren Aldeko Komitea.



Parlamentu txikia

Joan zen astelehenean, abenduaren 10ean, Aretxabaletako Kirol-Etxean Parlamentu txikia izan zen. Parlamentu txiki hori Eusko Jurlaritzak antolatu zuen eta Leintz Bilarako eskoletako 7. mailako haurrek parte hartu zuten.

Bailarako haurrek hiru ekintza desberdine-

tan parte hartzeko aukera euki zuten.

Legebiltzar txikia, bertan Iñaki Perurenak moderatzaile lanak egiten zituen, haurrek legeen gainean eztabaidatzen zuten bitartean. Bestetik, gaztelu puzgarriak eta herrian zehar ibili zen trena, "parlamentu" ize-nekoa.



Sauna barria

Kirol-Etxeko sauna barria zabalik

Abenduaren 28an Kirol Etxeko sauna barria zabaldu zen. Obrek 10 milioi inguruko kostua izan dute.

Obra horrekin instalazio hobekak eta kapazitateak haunditzea lortu da.

Sauna Kirol-Etxeko instalazio guztietatik erabiltzaile gehien duena da. Jendeak hainbeste erabiltzen zuenez, sauna zaharra hondatuaz joan zen eta gainera erabiltzaile kopurua handituaz zihoan. Hori dela eta, sauna zaharra baztertua eta sauna barria egitea era-

baki zen.

Sauna barria gainera leku desberdinean dago kokatuta. Taberna parean, lehen pisuan, orain arte tabernak zeukan jartzeko lekuan. Kontutan euki behar da sauna barriak, sauna zaharraren bi halako okupatzen duela. Saunara 30-35 pertsona inguru joaten dira egunero.

Hasiara batean sauna barria joan zen urteko otsailerako bukatzea espero zen, baina arazo teknikoak direla eta, orain arte ezin izan da zabaldu.

MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

Marti

Mitarte, 16
☎ 79 01 72

"HERRASTI"

AKEITA ETXEA

CAFES
la Brasileira

Aralar Kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3
Tfnoa: 79 23 77



Almenen Hezkuntz Proiektua

Urte luze bat erreflexioan eman ondoren Almenen aurkeztu barri dute Hezkuntz Proiektua.

Historiako une bakoitzak bere berezitasunak ditu. Gaur egun erabat al dakorra den gizarte batean bizi gara. Dinamismo horren ezaugarri bat, zenbait baloreren galera eta individualismo eta interes pertsonalen nagusitasuna

da.

Arazo horri aurre egin eta gizartea eraldatu eta berreraikitzeke gai izango diren pertsonak moldatzera behartuta sentitu zirelako, ekin zioten Almenen Hezkuntz Proiektuaren eguneratzeari.

Proiektuaren proposamena, irakasle eta guraso ordezkarien artean hainbat saiotan aztertu ondoren,

dibulgaziorako erakargarri gertatzen den liburuka batean laburtuta geratu da. Hori da, hain zuzen, Almen Ikastolak kaleratu barri duen liburua.

Bertan definitzen da Almenek hezkuntza ulertzeko duen era, hezkuntzaren bere ikuspegia edo aukera.

Proiektu horrek beraz, pertsonak egitean datza, nor bere buruaren jabe izango direnak, inguratzen dituenarekiko sentikorrek eta gizartean integratzeko, jokatzeke eta hobetzeko gai izango diren pertsonak, alegia.

Helburu horrek mugatzen du ikastolako jarduerara osoa, barne antolakuntza ulertzeko era eta partaide guztien (irakasle, guraso, bazkide) eginbeharrari koherentzia eta batasuna ematen dio.


Horregatik, "Hezkuntz Proiektua" liburuan, lantzen diren baloreekin batera, horiek lortzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkien baldintzak eta ondorioak laburbiltzen dira, Almeneko oinarrizko printzipioak bilakatu direnak: ikastetxearen ezaugarri nagusiak eta partaide bakoitzaren papera edo funtzioa.

• Kirol-Etxeko erabil-tzaileei karneta barrizteko ordua heldu zaie. Hori dela eta urtarri-laren 24etik aurrera Kirol-Etxeko instala-zioak erabiltze-ko karnetek barrizturik egon beharko dute.


• Atxabal-tako Udal Kultura Batzor-deak "Aretxaba-letako Bainue-txeak" izeneko liburua argitara-tu du. Liburua euskaraz eta erderaz dago eta Atxabaltako Bainuetxeen historia konta-tzen du. Liburua eskuratu gura duenak uda-letxera joan beharko du eta 200 pza ordain-du.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



EGUZKIGRAF

Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxab. Industrialdea, F-0-4 • Tfnoa.: 79 18 44
Faxa 79 29 41



Aurtengo irabazlea Imanol harategia izan da

Eskaparate lehiaketa

1993. urteko eskaparete lehiaketaren irabazleak abenduaren 30ean eman ziren jakitera. Arratsaldeko 7etan epaimahaia elkartu ondoren, irabazleek nortzuk izan ziren erabaki zuten. Lehen saria, hau da,

35.000 pzta eta plaka, Imanol harategikoak jaso zuen. Bigarren saria, 25.000 pzta, Izozkitegia eskuratu zuen eta hirugarren saria, Arkauz Altzaridendarendako izan zen. Zorionak denoi.



• Abenduan botatako euria zela eta inguruko errekek gora egin zuten. Garaje ugari urez gainzka agertu ziren eta lur jausi ugari izan ditugu. Orain errekek baretu dira, baina erreka inguruak plastikoz eta zikinkeriaz beteta agertu zaizkigu.

Lapurreta elizan

Errege egunean lapurrak izan genituen Atxabaltako elizan. Dirudienez Meza Nagusiaren ondoren lapurra edo lapurrak, ez dakigu zenbat izan ziren, eliza barruan geratu ziren, elizako kanpandorrean gordeta geratu zirela uste da, eta 75.000 pzta edo ostu zuten. Sakristaia arratsaldeko 6'30etan konturatu zen, sakristiako atea fortza-

turik ikusi zuenean. Konturatu bezain laster denuntzia jarri bazuen ere oraindik ez dute lapurra harrapatu. Lapurketa egiteko egun berezia zen, izan ere jende asko egon zen bai 11etako mezan eta baita 12etakoan ere. Beraz hortik atara dezakegu lapurketa egin zuenak ondo zekiela noiz joan behar zen dirua lapurtzera.

Eroskiren asanblada informatiboa

Eroskik asanblada informatiboa egingo du urtarrilaren 21ean Zaria zinean. Asanblada arratsaldeko 7etan izango da.

Konsumitzaileen batzorde lokala eta kooperatibaren martxa komertzialari buruzko informazioa emango da. Bukaeran hainbat opari zozketatuko dituzte asanbladara hurreiratzen direnen artean.

Horrez gain, Atxabaltako Eroskiren komiteak jardunaldi bi antolatuko ditu urtarrilaren 25 eta 26 egunetarako. Jardunaldiotan kolesterola, elikadura eta osasunari

buruzko gaiak jorratuko dira. Jardunaldien helburua kolesterolak duen inportantzia, eta bere maila elikaduraren bitartez zela kontrolatu daitekeen erakustea da. Has-teko, Jabier Elorriaga herriko medikuak "Kolesterola eta elikadura beti elkarrekin" izeneko jardunaldia eskeinitu du. Bigarren egunean Mari Tere Alonsok, elikadura monitoreak, dieta orekatuaren gainean jardungo du. Jardunaldi biak Kultur Etxeko bideo gelan izango dira, arratsaldeko 3etan. Sarrera debalde izango da.



Mikel Roldan Gipuzkoako txapeldun

Kadete eta juvenil mailako Gipuzkoako ziklo-kros txapelketa izan zen Atxabaltan urtarrilaren 2an. Kadete mailako lasterketa oso bizia eta interesgarria izan zen eta lehia polita ikusi ahal izan genuen parte hartzaile gazteen artean. Denera 17 txirrindulari ibili ziren. Arbizelai inguruko zirkuitoari bost buelta eman da gero azkarrena Mikel Roldan, Sport-Sasiain taldekoa izan genuen, Atxabaltarra berau. Bigarren lekuan, Joseba Albizu sailkatu zen eta 3.ean Igor Alzelai.

Jubenil mailako lasterketan 30 izan ziren parte hartu zuten txirrin-

dulariak. Hauek zirkuitoari 7 bira eman zioten.

Jubeniletan, hasiera hasieratik, Xabier Saizar txirrindulariaren nagusitasuna begibistan geratu zen eta bera izan genuen probako irabazlea. Atzetik Aimar Zubeldia eta Arkaitz Sodupe sartu ziren.

Antolatzaileak lasterketekin pozik bazeuden ere, ez, barriz, jendearekin. Aurten ere, Atxabaltan izan genuen Gipuzkoako ziklo-kros txapelketan, Atxabaltako publiko eskasa notizia bihurtu zen. Kanpotik jende gehiago inguratu zen zirkuitora. Tristeia benetan.

Laguntza jasoko duten Udal tasak

Aurten ere Udal Tasen laguntza aurrera eroango dela jakinarazigura die Udalak herritarrei.

1) Aurkeztu beharreko dokumentazioa
-N.A.N-ren kopia
-Langabeziaren txartela

-Etxeko guztien diru-sarreraren egiaztagiria
-Ondasunen deklarazioa

-kutxetako kartilak
2) Hobari gai dena:
-Lanen baimena
-Estolderia
-Etxeetako ur-horinkuntza
-Kultur eta kirol zer-

bitzuak

-Dokumentuen emaitza

3) Egiaztapena
-Hobaridun bakoitzari laguntzaren egiaztapen forgagarria emango zaio eta tasa edo zerga bakoitz ordaindu behar duenean aurkeztu beharko du.

4) Aurkezpen tokia:
-Laguntza horiek bideratzeko, Aretxabaltako udaletxera jo behar duzue, Gizarte Laguntzailearen bulegora.

5) Epea
-Eskaerak jasotzeko epea martxoaren 15ean bukatuko da.

Copreciren batzar berezia

Copreci kooperatibak urtarrilaren 15ean batzar berezia egingo du Zaria zinean. Batzar berezia eguerdiko 12etan izango da.

Batzar berezi horretan honako gai hauek eztabaidatuko dira:

- lazko maiatzean hartutako erabakia balio barik uztea, borondatze ko erreserbaren kapitalizazioari buruzkoa.

- Bazkideen aportazioak, 1993ko uztailetik abendura bitartekoak, ez ordaintzea.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Duela 10 urte hasi zen merkatua Atxabaltan. Hasierako garai haieran leku bitan jarten zen, Gipuzkoa plazan eta Gernika plazan. Baina merkatariek goi aldean behean beste saltzen ez zutela konturatu zirenetan horregatik behe aldean, hau da, Gernika plazan jartea erabaki zen. Dagoeneko sei urte daroatza Gernika plazan merkatuak. Postua ipini gura



Asteheneroko merkatua

duten merkatariek, alde aurretik Udalean baime-na eskatu behar dute eta gero beharrezko papeleo guztia ondo beteta euki; besteak beste lizentzia fiskala, autonomo izatea... Horrez gain Udalari postua ipintzeagatik

urtero diru kopuru bat ordaindu behar diote. Metroka kobratzen da erabilitako lur espazioa, metro bakoitzeko 147 pza ordaindu behar da.

Udaleko arduradunek aurrez kobretan dute, lehenengo, urteko

7 hilabetei dagokiena, abuztuan ez da ezer kobretan eta gero urteko azken lau hilabeteetako.

Gaur egun 30 bat postu daukagu astehenero jarten den merkatuan. Ingurukoak nahiz

Zumarraga, Beasain, Bilbo, Gasteizko... jendea aurkitu dezakegu gauzak saltzen.

Baina dagoeneko merkatuaren kapazitate guztia beteta dago eta ezinezkoa da beste posturik jartea.



Isidora Barbero

• Astehenero etorten zara merkatura?

LANETIK zuzenean etorten naiz merkatua dagoen gutzietan. Bizioa bezala da, etorri, ikusi, jendearekin egon, goiza pasetako modu bat.

• Ze eskeintzen dizu merkatuak?

Behar bada gauza batzuk merkeago topatu daitezke, oihalak... baina dena dela, kontuz ibili behar da erosteko orduan, ez dute ezer erregetan eta.

• Ze erosten duzu?

Fruta eta pastak gehien bat, barazkiak onak egon arren ez ditut erosten etxean dauzkadalako. Igarri dudana zera da; frutetan prezio eta kalitatearen artean desberdintasun txikia dagoela, barazkietan, barriz, kalitatea antzematen da, gauza onak ekarten dituzte beste denda batzuetan topatu daitezkeenak baino hobek. Eta gaztaia eta urdiaz-pikoetan ere oso produktu onak daude.

• Zela ikusten duzu Atxabaltako merkatua?

Txikia da eta postu gutxi daude Arrasatekoaz konparetan badugu. Postu gutxi egotean, kompetentzia ez da hain handia eta aukeratzeko orduan barietatea ere ez da hain handia.

Merkatariekin berbetan



Primi Gomez

- **Zenbat urte daroazu Atxabaltara etorten?**
Nik lau urte daroat etorten, baina nire anaiak 10

bat urte

- **Asko saltzen duzue?**

Egoera txarto dago eta igartzen dugu, krisia asko igartzen da

- **Zer da gehien saltzen duzuna?**

Bakeroak eta alkondarak

- **Zer eskaintzen du merkatuak beste dendek eskeintzen ez dutena?**

Batez ere, prezio merkeagoak. Bestela kalitatea berdintsua da, baina diferentzia prezioetan dago.

- **Uda eta neguaren arteko diferentzia igartzen duzue saltzeko orduan?**

Udan jende gehiago ibiltzen da, eguraldi hobez jendea animatu egiten da, neguan salmentak asko jaisten dira jende gutxiago dabilelako, jakina.

- **Merezi du merkatua jartea?**

Ez badago besterik, zer egingo dugu, azken finen lanbide bat gehiago da.

Carmen Alonso

- **Zenbat urte Atxabaltara etorten?**

10 urte daroat

- **Asko saltzen duzue?**

Ez asko, azken hiru urteotan eman den jaitsiera nabarmena izan da

- **Zer eskaintzen duzue zuek?**

Guk, bakoitza bere jeneroan produktu onak eskaintzen ditugu, onak eta beste dendak baino merkeagoak. Jendeak beraz produktu onak eta merkeak erosteko aukera dauka.

- **Merezi du merkatua jartea gaur egun?**

Azken urte hauetan ez du gehiegi merezi, salmentak asko jaitsi dira eta moral aldetik merkatariorik oso baju gabiltza. Askotan ez dugu ordaindu behar ditugun errentetarako ataraten. Dena dela, urte asko daroat negozio honetan eta ez diot krisiari erru guztia botaten, uste dut supermerkatu handiek lur jota utzi gaituztela. Krisiak horrenbesteko eragina balu supermerkatu haundietan ere igarriko litzateke eta hor ez da nabaritzen, jendea ez dabil merkeago edo garestiago dagoen begira, ez zaio inporta zer hartzen duen



dena poltsara doa. Gaur egun praktikotasuna gura dugu, kotxeaz denda ateraino joan, dena eskura euki... eta merkatuak ez du hori eskaintzen.

- **Zenbat ordaintzen da postua jarteagatik?**

Sei hilabetero ordaintzen dugu. Nik bi metro hauen-gatik urtero 28.000 pza ordaintzen dut, guretako oso garestia da eta are gehiago gaur egun gauza zela dagoen ikusita. Izerdi asko bota behar dugu diru pixka bat atarateko.

Izaskun Iglesias 9 urte zeukanetik gimnasia erritmikoan ibili da. Asko entrenatu du, askotan egunero bi ordu luzez. Bere lana iaz hasi zen ikusten, Gipuzkoako eta Euskadiko txapel-dunorde geratu zenean. Eta gainera, Gabonetan Arrasateko kirolari onenaren saria jaso zuen. Aurten ere berdina egin gura du, baina gatxagoa dauka.



Izaskun Iglesias, gimnasia erritmoz lantzen

• **Zela eta noiz hasi zinen gimnasia erritmikoa egiten?**

• Txikitatik gustatu zait. Lehen beti satoka eta antzerako gauzak egiten ibiltzen nintzen. Behin hondartzan nengoela, bikote batek esan zidan nire gorputza gimnasia erritmikoa egiteko aproposa zela. Ondoren 9 urterekin Arrasateko Kiroldegian apuntatu nintzen.

• **Zenbat denbora ematen duzu entrenamenduetan?**

• Astelehenean, eguaztenetan eta eguakotzetan ordu t'erdi

eskaintzen diot kirol honi. Baina konpetizio garaian egunero ordu biz entrenetan dut, zapatuetan ere bai.

• **Noiz hasten zara konpetizioan?**

• Normalean maiatzean eta otsailan izaten dira.

• **Zer egin behar da parte hartzeko?**

• Hasieran andereñoak klaseko onenak aukeratzen ditu. Ondoren Gipuzkoako jendearekin norgehiagoka hasten gara eta han froga batzuk pasatu behar ditugu. Hemengo onenak Euskadiko lehiaketara

joaten dira, Gipuzkoako hiru onenak, Arabakoak eta Bizkaikoak.

• **Ze probatan parte hartzen duzu konpetizioetan?**

• Iaz bi aparatutan hartu nuen parte; soka eta uztaiaren. Aurtengo lehiaketan hiru aparatuek erabiliko ditut, esku libre eta pilota, bestea oraindik ez dakit.

• **Zeren arabera ematen dira puntuak?**

• Ariketa batzuk beharrezkoak dira, eta egiten ez badituzu puntuak kentzen dizkizute. Ariketan zerbait txarto egin ezkerdo edo tapizetik ur-

teten baduzu penalizazioak daude.

• **Bakarrik ala taldeka parte hartzen duzu?**

• Nik bakarrik, nire edadeko jende gehiago ez dago eta.

• **Zer egin behar da Estatu mailako txapelketara joateko?**

• Datorren urtean Gipuzkoako txapel-dun geratu zero Espaniako txapelketetan parte hartuko nuke. Baina oso gatxa daukat aurten, tresna barriak erabili behar ditut eta.

• **Ze behar da gimnasia egiteko?**

• Mallak, mailota eta belaunetakoak. Gero bi aparatuek daukat, aroa eta pilota.

• **Zer esaten dizute familiakoek?**

• Familiakoek asko laguntzen didate. Nire amak iaz egunero eramaten ninduen Arrasatera.

• **Beste kirol egiten duzu?**

• Bai Almenen astelehenean eta eguenean kirol desberdinak egiten ditut; saskibaloia, futbola eta atletismoa.

• **Ze izan gura zenuke haunditzean?**

• Carmen Azedo eta Carolina Pascual bezalako izatera heltzea gustatuko litzaidake.

*R. Velasco
J. Fuensanta*

XVII. Olinpiada Marianista



Aurreko Aretxagazetan aurreratu genizuen aurten XVII. Olinpiada Marianistak Cadizen izan direla. Andaluzia aldera 108 jokalaria joan ziren Almenetik, 20 entrenatzaile eta delegatuen laguntzaz.

Ez zuten batere paper txarra egin, denera 10 dominekin bueltatu ziren.

Domina guzti horiek hiru modalitate desberdinetan lortu zituzten; futbolekoan, atletismoan eta saskibaloian. Futbolekoan erreteko domina bi eta brontzezko bat lortu zuten. Lan polita egin zuten jubenil eta kadeteetan, zailtasun handirik pasatu barik azkenean txapelkunak. Hasieratik ikusi zen talde indartsuenak eta faboritoak eurak zirela. Saskibaloian, barriz, ez zen horrelako zorte ona izan. Lau talde joan ziren eta lau talde-

tatik domina bi lortu zituzten. Kadete nesketan brontzezkoa eta jubeniletan zidarrezkoa, beste bi taldeek, infantil neskek eta kadete mutilak ez zuten zortetik izan. Atletismoa izan zen domina gehien ekarri zuen modalitatea. Atletismoa Almenen galdutzat ematen zen, baina Andaluzia aldean ikusi zenez, oraindik zer esan haundia dauka. Denera 5 domina ekarri zituzten.

Aurten, aspaldidanik galduta zegoen esku-baloian ere talde bat izan dugu. Oso talde gaztea zen, eta ez zuten gauza haundirik egin, baina aurrerantzean lan hobea egiteko asmoarekin etorri ziren.

Beraz esan dezakegu, lan polita bete dutela Andaluzia aldean Almeneko neska-mutiek eta gainera denak ondo urten duela.

Ivan Silva taldea irabazle Peña Zubi Txapelketan

Peña Zubik Gabon garaian egiten duen futbito txapelketaren irabazleak nortzuk izan ziren abenduaren 5ean jakin genuen. Aurtengo txapelketan 15 taldek parte hartu zuten eta horrela geratu da sailkapena: lehen postuan Ivan Silva taldea, 2. ean Lora-mendi, 3. tokian Arrasate, 4. Aramaio, 5. Risketos, 6. ean Almen Arra, 7. Gun Roses, 8. Almen Are, 9. Potritos eta 10. postuan Peña Zurito.

Horrez gain sari bereziak egon ziren. Atezain erregularraren lehen saria Julio, Almen Arra taldekoak jaso zuen, bigarren saria Aramaio taldeko Amasenek. Gainera jokalaria erregularrenari ematen zaion saria egon zen, oraingo honetan Akaitz Garai, Potritos taldeko jokalaria jaso zuen trofeoa. Jokalaria erregularrena saritzen duen trofeoa duela 10 urte ematen hasi ziren eta esan beharra dago beti trofeo bera izaten dela, hau da, Kontxako barandauaren irudia.



Futbola

Joan zen Domekan, UDa taldeak, Real Union taldearen kontra neurtu zituen indarrak, azken emaitza Real unione 3 UDAK 0 izan zen. Datoren domekan Trintxerperen bisita izango dugu lbarran.

Lehen Errejonale-

koek, barriz, irabazi egin zuten Anaitasuna taldearen aurka 1 eta 0. Hurrengo erronka Touring-en kontra izango dute. Neskek ere Zumaikoren aurka galdu egin zuten 0 eta 1. Ea Alde zaharra taldearen kontra zorte hobea daukaten.

San Sebastian bat bada, Areantzan ere

Datorren astean, urtarrilak 20, San Sebastian eguna dela eta, danborradaren zarata hotsak Areantzaraino garamatza, bertako Elizako eskuineko aldarean kokaturiko irudia gozatzeko asmoz.

Dakizueenez Sebastian, Diokleziano enperadorearen garaiko zenturoia zen. Bere kristau fedea defendatzeagatik bere gorputza geziz josis, martirizatu egin zuten.

XV. mende bukaera arte beti bizardun errepresentatu bazuten ere, ordutik aurrera, gazte itxuraz eta biluzik agertzen zaigu, bere gezi, zauri eta guzti. Jarrera estatikoa du, zigorra gainditzen duenaren

adierazpen gisa. Garai haretan Santu honekiko zaletasun asko erakutsi zen, jendeak izurritea Jainko haserre batek bidalitako geziak zirela pentsatzen baitzuen.

Txapel borobila du, kopa osoa inguratzen ez dion buelta batekin. Buruko hau XV. mendean bukaeran agertu zen, eta Micaela Portilla irakasle ospetsuak esaten duenez, Madrileko Museo Nazionalean dagoenak eta Bartzelonako Ricart Bildumakoak ere ikonografia berdina azaltzen dute, baita Arabako Herediako Eliz Parrokiakoak ere.

Garai horretako dela esateko, hor non dauzkan alkorkeak, Españian XV. mende

bukaeran erabilitako oinetako mota, kortozko azpikaldea, puntarik eta orporik gabekoa.

Beraz, 1500. urtearen inguruan koka dezakegu Areantzako San Sebastian hau, Aretxabaletan daukagun arte adierazpen garrantzitsu eta interes haundienetarikoa bat, Ertaroko ezaugarriei, Errenazimenduko ezaugarriak gehitzen zitzaizkien seinale garbi eta polita.

Ikusten zoaztenok, kontuz ibili! Ea, San Sebastian eguneko danbor hotsek ez duten sunsitzen bere azkenetan dagoen Areantzako Eliz-Parrokia.



A. Antxia
I. Urreta

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiak ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den baserria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Durana 7)

Aurreko lehiaketaren irabazlea ANE MIREN

ALDAY. Zorionak.



Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:



J.J. Aretxaga

"Urte barri, zoroek ere igarri" esaten da. Zuok, irakurleok ere igarriko diozue. Datorren zenbakitik aurrera itxura aldatuta atarako ei da Aretxagazeta. Entzun dudanez, aldizkaria urtarrilaren 27tik aurrera potoloagoa izango da, lau orrialde gehiagorekin. Letra ere potoloagoa izango dela ziurtatu didate, bazen ordua, urteetan aurrera goazeno i dexente kostetan zaigu irakurtzea. Erretratuak haundiagoak atara gura dituzte, hori ikustekoa izango da. Eta baserriarrek orri berezia eukiko dutela kontatu didate; Atxabaltan ehundik gora baserri daude eta hutsune hori beteten saiatuko dira.

Urte barriarekin batera aldaketak normalak izaten dira. Zenbaki aldaketa hutsa baino gehiago izaten dela esan daiteke. Gi-

puzkoako Kutxaren herriko sukurtsalean urte askoan lanean ibilita gero, jubilatuta egin da Andoni Antxia. Bere partez beste atxabaltar bat etorriko da, orain arte Mondragoen lanean jardun duena, Jose Inazio Arenaza.

Herriko alkateak ere igarriko dio. Udaleko liberatu izateari utzi dio eta Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolara bueltatu da Aitor Antxia.

Bueltarik ez duena hilaren 5ean herri-
tik pasatu ziren bisitariena da. Trakatran-
trakatran, zaldi gainean, lehenengo Ekaitz
Filarmendi pasatu zen, bere atzetik
Felix Uribebarria eta azkena pasetan
Jose Antonio Zangitu izan zen.

Urte barriarekin batera, Kurtzebarri
eskolako guraso elkarfeak antolatuta,
Maria Jesus Carrillo marrazkiei buruzko
ikastaroa ematen hasi da, kurtsu bukac-
era arte iraungo du ikastaroak. Ea umek
zelan "pintetan" diguten urte hau.

Izaskun Iglesias pozez saltoka ibiliko
da, batetik bere afizoa gimnasia ritmikoa
delako eta bestetik Errege egunean Arra-
sateko Aukea saria eman ziotelako.

Eta bukatzeko, Atxabaltan norbait
haurdun dago.

Aretxagazetako bazkide izan gura baduzu

deitu: ☎ 79 01 05

Arratsaldeko 3retatik 7retara

15 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zاراia zineman "EL ABOGADO DEL DIABLO" filmea.

16 DOMEKA

- Futbol partidua: U.D.A - Trintxerpe C.D.
- Zاراia zineman, arratsaldeko 4,30etan "LOS REBELDES DEL SWING" eta 7etan "EL ABOGADO DEL DIABLO" filmeak.

21 EGUAKOTXA


- Zاراia Mendi Taldearen **ezohizko Batzar Orokorra**.

22 ZAPATUA

- Gaueko 10etan, Zاراia zineman, "ESENCIA DE MUJER" filmea.

23 DOMEKA

- Zاراia Mendi Taldearen urteera: "**Finalistaren eguna**".
- Futbol partidua: U.D.A. - MUndarro K.E.
- Zاراia zineman arratsaldeko 4,30etan 7etan "ESENCIA DE MUJER" filmeak.



25 MARTIZENA

- Arratsaldeko 3retan, Kultur Etxeko bideo gelan, **Eroskiren eskutik "COLESTEROL"** ari buruzko hitzaldia.

26 EGUAZTENA

- Arratsaldeko 3retan, Kultur Etxeko bideo gelan, **Eroskiren eskutik "COLESTEROL"** ari buruzko hitzaldia.

ARETXAZOKA

Lana

- Edozein motatako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuan. Interesatuak deitu 79 77 59 telefono zenbakira eta Fernandez galdetu.
- Irakasle titulatuak klase partikularrak emangolitzuzke O.H.O.ko 1. mailatik 8. mailara arte. Tfnoa: 77 10 72

Etxebizitza

- Etxe bat alokatzen da Atxabaltan, interesatuak deitu 79 29 19 telefonora.
- Pisu bat alokatuko nuke. Jantzi barik hobe. Interesatuak deitu 71 47 10 telefonora eta losuz galdetu.
- Etxebizitza bat alokatzen da. Interesatuak 79 46 25 zenbakira deitu.

Salerosketak

- Kotxe zaharra botatzera bazoaz! IHES Eki-mena kotxe baten behar-rean dago, beraz... 79 26 99an aurkituko gaituzu.
- Renault 4 f 6 markako furgoneta bat salgai dago. Interesatuok 79 62 69 telefonora deitu.

Orrialde honetako iragarkiak (Lana, etxebizitza, salerosketak eta bar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

PUBLIZITATEA

SAGASTA ELEKTRIZATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10

ZARIAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABAETA
Tfnoa: 77 07 94
79 91 84


ITURGINTZA

JJ

Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABAETA



Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABAETA



EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

T X i L A R R A



ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABAETA



INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S .A


Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55

Optica



Loramendi, 10
☎ 79 98 21

Mobiliario ARENZA

ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABAETA

ARETXABAETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABAETA

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69
ARETXABAETA

ANDONI ALTUBE

ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK

Durana, 36
☎ 79 10 60

ANEK BAI JAKIN!

IV



BOSNIAKO GERRARI BURUZKO IKERKETA HAU EZ DA BATERE ERREZA-ESKERRAK TALDEKAKO LANA DELA!



LANAK, TALDEAN BANATUTA ERREZAGO ETA HOBETO EGITEN DIRA



ETXEAN DAUKADAN LIBURU BATETATIK KOPIATUKO DUGU DENA ETA KITTO!




EZ, INFORMAZIOA LEKU ASKOTATIK JASO BEHAR DUGU, BAINA EZ KOPIATU

GURE ERITZIA IDATZI BEHAR DUGU, EZ BESTEENA



IRAKASLE, BAINA ZEREGATIK EZ DA BUKATZEN GERRA?



HORRI BURUZKO ERREPORTAI BAT DAUKAZUE HEMENGO BIDEON HONETAN



IKUSI, ETA ATERA ITZAZUE ZUEN ONDORIOAK!



ONDORIOAK ATERA ARREN, GUREGATIK EZ DA BI GERRA BUKATUKO



GAUZA GUZTIAK GUK BEZALA TALDEAN HITZEGINEZ EGINGO BALITUZTE BAT!!

HEZIBIDE 94